

# AZKEN POEMARIOAK

\*\*\*

# ÚLTIMOS POEMARIOS

X. GALARRETA



Hegala, Durero

**Lege-Gordailua: SS-1069/2007**

ART AMOROS  
(Euskarazko bertsioa)

### **1) Maitasun-arantza**

Maitasunak hiltzen du.

Ez zaitez erail.

Erail zaitez. Erdi erail zaitez.

Maitasunak ez du hiltzen, eraldatu baino ez du egiten.

Maitasunak iraungipena du xede

eta iraungipenak ezereza,

ergo...

Maitasuna koka-lerroa da.

Ihes egiezu drogei.

Erail zaitez baina ez zaitez droga.

Droga zaitez baina ez zaitez erail.

Erail zaitez eta droga zaitez.

Ez, ez zaitez erail eta ez zaitez droga.

Edo bestela, erail zaitez eta droga zaitez.

Nik zer dakit, ba. Ez naiz zure aita...

Maitasunak ahantzia du xede

eta ahantziak ezereza,

horixe izanik [ibai] guztien akabera.

Erail zaitez, ez zaitez erail.

Erailtzeko tresna zara,

ez zaitez erail, tresna hori,

erail zaitez, tresna hori,

tresna zaitez, erail hori.

Eup! eup! eup!

Maitasuna barea da

Ozeano Barea bezain,

non milaka lagun hiltzen diren

itsasaldietan, enbatetan,

horko itzelezko zera guztioietan...

Asteazkena da. Egun bikaina

nor bera erailtzeko, zu maitatzeko,

drogak hartzeko, “-tzeko” “-tzeko” “-tzeko”

Nahikoa! Zaude! Geldi zaitez! Egon geldi! Aski da!

*Droga zaitez baina ez zaitez erail.*

*Erail zaitez eta droga zaitez.*

*Ez, ez zaitez erail eta ez zaitez droga.*

*Edo bestela, erail zaitez eta droga zaitez.*

*Nik zer dakit ba. Ez naiz zure aita...*

## **2) Maitasun beltza**

Haren maitasunak, multikopiatuta,  
arnasa hartzen zuen lasai asko;  
haren ebanozko gorputz luzea,  
dirdiratsua, gaztea, boteretsua...

Eta ni, luzanga, dardarti,  
hunkiturik...

Urrezko neskatila mulatoa,  
ile-kizkur,  
emakume koloreaniztun eta forma askoko...

“Nire zakila ospetsua da Europa osoan!”, garrasi egin nuen.

Haren hortzek su-distira egin zuten.

“Eta zergatik egiten duzu negar?”, galdegin zidan.

“Nire zakilak garaikurrak irabazi ditu eta sarraskiak eginak ditu!”, oihu egin nuen are ozenago.

Haren irribarrea lore erraldoi antzo zabaldu zen.

“Orduan, zer dela eta egiten duzu negar?”

“Nire zakilak ez zuen inoiz porrotik ezagutu!”, urratu nuen eztarria.

Begirada sugandilatxo bat bezain azkar saihestu zuen,  
irriñoa areago ere zorroztuz.

Bularraren kontra oldartu nintzaion eta ditiburu beltzak musukatu nizkion.

“Lehen gizakia Afrikatik datorrela diote”, esan nion,  
erdi zorabiatuik.

Haren ezpaineak irribarre bat marraztu zuten.

“Zeinen ederra den etxera itzultzea, hainbeste urteren ondoren...”, nik.

Eta haren lurrinez horditurik, erantsi nuen:

“Horregatik egiten nuen negar”.

### **3) Bete beharreko misio bat**

Nire burmuin osoak egiten zuen bor-bor irudi lizunak medio.

Pozez gainezka nengoen;

eta gezurra irudi arren,

ez nuen madarikatzen nire patu makala.

Bete beharreko misio bat neukan:

azken 24 orduetan pilatutako

esperma “karel gainetik” botatzea.

Misioa berez ezin atseginagoa begitantzen zitzaidan;

bidea, ordea, zaila eta luzea,

porrotez eta ipurdikoz josita; ala... arrakastaz mukur...?

Artean ez nekien nor zen.

Ez nekien emearen berririk bat ere:

izena nola izango zuen (baldin-eta inoiz esango balit,

benetako izena alegia)...

gaztea ala heldua izango ote zen...

haren begiak marroiak ala beltz ilunak izango ote ziren...

jeanak ala udako soineko sentsuala jantzita agertuko ote zen...

Ez nekien ezertxo ere.

Baina han zegoen, hiri hartan zegoen,

nonbait,

etxetik ateratzeko zorian edo kalean ibiltzen

edo kafetegi batean eserita...

Banekien han zegoela, lekuren batean,

eta ez zela erraza izango, baina... ezta ezinezkoa ere.

Aurkitu egingo nuen. Eta nire esperma botako nion,

paketetxo baten barruan balitz ere.

“Barka, ez duk izango zigarrotxoren bat...?”.

Bueltatu nintzen eta begiratu nion.

Hantxe zegoen. Berehala jakin nuen bera zela.

“¡Aurkitu dut!”, pentsatu nuen pozkarioz.

Azkenean, nik uste baino askoz errazagoa

izan zen dena.

#### **4) Azken agur gozoa**

Haren ezpaineak lehenik egin zuten tiro.

Bazihoan, esan zidan.

Nik baietz egin nuen buruaz, minduta, uneaz gozatzen.

Haren pena, desilusioa atzematen nituen...

Baina kontuak (nik) ez zuen konponbiderik. Eta berak (neskak) bazekien.

Haren begiradatik zintzilik oraindik limosna bat,  
keinu batez desegin nuena.

Leiho-garbitzailea ganoraz ari zen lanean aurreko espaloian.

Goitik likido bat hasi zen erortzen. Euria.

Arratsa lirika hutsa zen. Zeukan kutsuak

luze iraungo zuen. Mementua ez hondatzeko eskatu nion,  
hitzekin. Trafikoak maiztasuna goratzen zuen.

Hiriak zarata pilatua okatzen zuen.

Eta neskak hantxe iraun zuen, eraitsita,

liluragarri, sentimendu errausgaitz baten mendean.

Hari musu bat ematea otu zitzaidan. Hark ere gauza bera pentsatu zuela uste dut.

Jaiki zen eta aldi batez begira geratu zitzaidan. Alde egin zuen.

Ni, eserita geratu nintzen...

minduta, uneaz gozatzen.

### **5) Harreman urardotuak**

Maitaleek elkar manipulatzten zuten,  
goizetik gauera.

Haien maitasuna eskuizkribuetan iraungitzen zihoan  
egun batetik bestera.

Liskarrean hasteko nahikoa zuten sagartxo bat  
(errutinarekin hautsiz gero akaso  
batasuna ziurtatu ahal izango zuten...).

Noizean behin, sentimenduak hantxe  
gelditzen ziren zapal-zapal eginda... Egun bat,  
beste bat eta beste bat...

Dirdira itzaltzera zihoanean,  
berriz ere pizten zen  
itxaropen berri batez.

## **6) Maitasunaren benetako izaera**

Emagaldu hotz eta apetatsua,  
horra Maitasuna zer den;  
alferrikakoa, hura ulertzen ahalegintzea.  
Arrokatik igo beharra dago,  
mendia miretsiko badugu,  
jakinda nahitaez jaitsi beharko dugula...  
Maitasuna... denok barruan daramagun  
[bizkarroia, ispilu zitala...],  
printzea doilor eta miserablea bertutetsu  
bilakarazten dituen...  
Denok barruan daramagun Maitasun horixe,  
gu barrutik jaten, nekaezin,  
sits fumigagaitz....  
ortziari lapurtutako izar...  
agortezin, burdin gori...  
gogoeta txar baten emaitz.



## **7) Hondakinak**

Bularretakoa, barruko arropa zikina eta  
[gutxitzen goazelako sentsazioa]

gelditzen zaizkigu biharamunean.

Salerosketa bukatzen hasi da.

Arnasa beroaren ordezt, puzkerrak eta

zigorkadak datoz,

zeinek eramango gaituzten dagoeneko ez daukagunaren

itxura egitera.

Hala bada, atzoko sugarra bazter batean uzten da

eta maitasun-monopolioak puti-klub

bihurtzen du espero genuen

neurria:

maitasun hartzitua,

Pikatzaille hanka-okerraren

azken hondakinak, orain hortxe baitago, gorpu, zezen-plaza odoleztatuaren erdian,

bere zaldiaren erraiak ondo-ondoan dituela.

Xabier Galarreta

2006ko azaroa

ART AMOROS  
(Versión en castellano)

### **1) Espina de amor**

El amor mata.

No te mates.

Mátate. Medio mátate.

El amor no mata, sólo transforma.

El amor está abocado al ocaso  
y el ocaso está abocado a la nada,  
ergo...

El amor es una raya de coca.

Pasa de las drogas.

Mátate pero no te drogues.

Drógate pero no te mates.

Mátate y drógate.

No, no te mates y no te drogues.

O si no, mátate y drógate.

Yo qué sé. No soy tu padre...

El amor está abocado al olvido  
y el olvido está abocado a la nada,  
que es el morir de todos [los ríos].

Mátate, no te mates,  
eres una máquina de matarte,  
no te mates, máquina,  
mátate, máquina,  
maquínate, mátate.

Eup! eup! eup!

El amor es pacífico como  
el Océano Pacífico,  
en donde se muere a miles  
en las mareas, en las tormentas,  
en la inmensidad ésa...

Es miércoles. Un buen día  
para matarse, para amarte,  
para drogarse, para para  
¡Para! ¡Detente! ¡Ya basta!

*Drógate pero no te mates.*

*Mátate y drógate.*

*No, no te mates y no te drogues.*

*O si no, mátate y drógate.*

*Yo qué sé. No soy tu padre...*

## **2) Amor negro**

Su amor, multicopiado,  
respiraba tranquilo,  
su cuerpo de ébano estirado,  
brillante, joven, poderoso...  
Y yo, larguirucho, temblón,  
emocionado...

Mulatita de oro,  
de cabellos rizados,  
mujer multicolor y multiforme.

“¡Mi pene es famoso en toda Europa!”, le grité.

Sus dientes blancos brillaron como el fuego.

“¿Y por qué lloras?”, me preguntó ella.

“Mi pene ha ganado trofeos y causado estragos”, grité aún más fuerte.

Su sonrisa se abrió como una flor gigante.

“Entonces, ¿por qué lloras?”

“¡Mi pene no conoció nunca la derrota!”, me desgañité.

Desvió la mirada rápida como una lagartija,  
agudizando aún más si cabe su sonrisa.

Me abalancé sobre su pecho y besé sus pezones negros.

“Dicen que el primer hombre vino de África”, le dije,  
semidesmayado.

Sus labios se plegaron en una sonrisa.

“Es hermoso regresar a casa, después de tanto tiempo...”

Borracho de su perfume, añadí:

“Por eso lloraba”.

### **3) Una misión que cumplir**

Todo mi cerebro bullía  
con imágenes obscenas.  
Me sentía pletórico,  
y aunque parezca mentira,  
no maldecía mi pobre destino.  
Tenía una misión que cumplir:  
arrojar por la borda todo el semen acumulado  
en las últimas 24 horas.  
La misión en sí era gratificante;  
el camino largo y difícil,  
plagado de fracasos y de éxitos.  
Aún no la conocía.  
No sabía quién era la hembra,  
su nombre (si acaso me lo llegara a decir,  
el suyo, el verdadero);  
si sería joven o madura;  
si sus ojos serían marrones o negro oscuro;  
si llevaría pantalones vaqueros o un vestido insinuante.  
No sabía nada.  
Pero estaba allí, en aquella ciudad,  
moviéndose por algún sitio,  
a punto de salir de casa o caminando por la calle  
o sentada en un café...  
Sabía que ella estaba ahí, en algún sitio,  
y que no sería fácil, pero... tampoco imposible.  
La encontraría. Y le arrojaría mi semen,  
aunque fuese empaquetado.  
“Disculpa, ¿no tendrás un cigarrillo...?”.  
Me di la vuelta y la miré.  
Allí estaba. Inmediatamente supe que era ella.  
¡La había encontrado!  
Al final todo fue más fácil  
de lo que había pensado.

#### **4) Dulce despedida**

Sus labios dispararon primero.

Se iba, me dijo.

Yo asentí, dolido, disfrutando el instante.

Percibía su pena, su desilusión...

Pero era caso perdido (yo). Y lo sabía (ella).

De su mirada aún pendía una limosna,  
que yo deshice con un gesto.

El limpiacristales se afanaba en la otra acera.

De arriba caía un líquido. Llovía.

La tarde era pura lírica. Aquel regusto  
duraría. Le pedí que no lo estropeará,  
con palabras. El tráfico elevaba la frecuencia.

La ciudad vomitaba el ruido acumulado.

Y ella permaneció allá, desmantelada,  
deslumbrante, con un sentimiento incinerable.

Pensé en darle un beso. Creo que también lo pensó ella.

Se levantó y se quedó mirándome un rato. Se marchó.

Yo, me quedé sentado...,

dolido, disfrutando el instante.

### **5) Relaciones adulteradas**

Los amantes se manipulaban,  
de la mañana a la noche.

Su amor caducaba en los manuscritos  
de un día para otro.

Necesitaban de la manzana de la discordia,  
si acaso quebrantando la rutina  
podrían asegurar la unión...

De vez en cuando, los sentimientos  
quedaban allí pisoteados... Un día uno,  
otro día otro...

Cuando el brillo se apagaba,  
volvía de nuevo a refulgir  
en una nueva esperanza.

## **6) La verdadera naturaleza amorosa**

Es el Amor una ramera  
distante y caprichosa;  
inútil esforzarse en comprenderla.

Hay que trepar la roca,  
para admirar a la montaña,  
sabiendo lo inevitable del descenso...

El amor... ese parásito que todos llevamos  
[dentro...];

ese espejo falaz, que hace príncipe al ruin  
y miserable al virtuoso...

El amor que todos llevamos dentro,  
corroyéndonos, incansable,  
polilla infumigable....  
estrella robada al firmamento...  
inagotable, incandescente...  
el mal resultado de una mala reflexión.



## **7) Restos**

Al día siguiente nos queda el sujetador,  
la muda manchada, y la sensación de  
[estar menguando].

El mercadeo va tocando a su fin.  
En lugar del jadeo vienen los gases  
y el flagelo,  
que nos llevará a fingir lo que ya  
no tenemos.

Así, la llama de ayer se margina  
y el monopolio amoroso acaba transformando  
en puti-club la medida  
esperada,  
el amor fermentado,  
el poso final del Picador  
patizambo, ahora ahí, cadáver, en la plaza ensangrentada,  
junto a las tripas de su caballo.

DEN-DENA DA URDI NA  
(Euskarazko bertsioa)

Zerua, izaki sortu berri baten gisa,  
amets baten gisa, arimatik egotzita,  
begira dugu.

Zaila da hainbeste zero,  
hainbeste urdin, gureganatzea.  
Zeruak –garbi-garbia, arrakalarik gabea–  
bere antzinako begirada jaurti du  
eta eguna urratu du  
gauak ezkutatzen zuen guztian.

\*\*\*

Zeruko urdina gure begi-niniak gainezkatzen,  
gure begizuloetan barreiatzen,  
irisaren kolorea aldatzen, orbitak ere  
urdinez tindatzen.

Zeru urdina gure begietan hedatzen,  
eta hortik gure gorputz osoan zehar zabaltzen,  
den-dena urdinez josiz,  
urdin bizi-bizi batez betetzen  
(hain da urdina, ezen, min egiten duen).  
Zeru urdina hedatuz doa  
infinitu bihurturik,  
jainko mitiko baten helburu urdin  
bilakaturik.

\*\*\*

Zeruaren aurpegi ugariak,  
hainbeste sekreturen zaindari zorrotza  
den zero horretxenak...  
Soak min hartzen du zeruari begiratzean  
(horren zabala, horren itzela da-ta...).  
Zeruak bere lekukotasuna ematen digu,  
eta errealitate orotatik harantzago  
egiten du aurrera, geldiezin...  
Ia dirudike arnasten duela, gozatzen duela...  
Gerora, izar-sorta batekin  
jantziko du begitartea eta berriz ahoskatuko ditu  
sorginkeriaren hitz goibelak.

\*\*\*

Zeruari so egin eta oihu egiten dut:  
“Jaso aingura eta abia gaitezen!”  
Eta orduan, begirada abandonatzen dugu  
[zeruko betekotasunean.]  
Begietatik ke kiribil bat altxatzen zaigu zerurantz,  
hurrenik hodei bilakatuko dena,  
hortxe, zero urdinaren amildegian,

hildako baten tamaina duen eternitate horrexetan...  
Arimak begiaren gainean antolatu du bere bidaia,  
eta betazaletan pisu urdin izoztu bat sumatzen dugu,  
hilezkor, amets egiteari loturiko hodei-multzo baten gisako,  
halabeharrezko bilakaeraren eskuetan lagata.

So dagigu eta ulertzen dugu:  
zerua hondorik gabeko desira bat da,  
ameslariarentzako abesti bat da,  
jainko iraungi baten oihartzun galdua da.

\*\*\*

Zeru urdinerantz jaso dugu soa, baina  
berehala begiratu behar izan dugu beste aldera  
eta inguratzen zaigun guztian jarri dugu arreta...  
¡O, hauxe bai miresgarria, den-dena da urdina eta:  
atzo erosi genuen auto gorria, zoladurak,  
etxe-aurrealdeak, zuhaitzen hostoak,  
zakar-ontzietan azterka dabilen txakurra,  
okindegiko saltzailea (Eva gaixoa!”), kruasanak eta kafesneak,  
lorategiko belarra, emakumeen ditiburuak,  
Juan Jose M<sup>a</sup>ren zakila, liburuzain jaunaren bibotea... urdinak dira guztiak!  
Eta oinezko guztiak ere urdinak dira, urdin-urdinak,  
zeru-zati bat irentsi izan balute bezala!  
Eta eskuko hatzak, eta esperma-zipriztinak, eta ideiak  
orrazteko baliatzen dugun ispiluak itzultzen digun isla,  
eta irratiko esatariaren ahotsa, eta indusmakina erraldoiak  
altxatzen duen hautsa (hori ere urdina!),  
eta auzokoaren txoria, eta txoria preso daukan kaiola,  
eta auzokoa, eta auzokoa preso daukan etxea...  
horiek ere urdinak! Eta... dena, den-dena da urdina,  
urdin-urdina, zeru guztiak gure gorputz hil edo bizietan  
sartu izan bailiran!

2006ko azaroa

TODO ES AZUL  
(Versión en castellano)

El cielo, como un ser recién nacido,  
como un sueño expulsado del alma,  
nos contempla.

Es difícil asimilar tanto cielo,  
tanto azul.

El cielo, límpido, sin una grieta,  
lanza su mirada antigua  
y rasga en el día cuanto  
en la noche oculta.

\*\*\*

El azul del cielo desborda mis pupilas,  
se desparrama en las cuencas de mis ojos,  
cambia el color del iris, las órbitas  
también llena de azul.

El cielo azul se extiende en mis ojos  
y de ahí baja hacia todo mi cuerpo,  
lo llena de azul,  
de un azul intenso,  
tan intenso que hace daño.

El cielo azul se expande  
hasta convertirse en infinito,  
en azul objetivo de un dios-mito.

\*\*\*

Los diversos rostros del cielo,  
celoso guardián de tantos secretos...

La mirada duele al mirar a ese cielo,  
tan abierto, tan descomunal.

El cielo da testimonio de sí mismo,  
y más allá de cualquier realidad  
avanza inmenso, imparable...

Casi da la impresión de que respira y goza...

Luego, con un manojo de estrellas  
vestirá su rostro y pronunciará  
de nuevo las oscuras palabras del conjuro.

\*\*\*

Miro al cielo y grito “¡Leven anclas!”.

Y entonces mi mirada se entrega a lo eterno  
[del cielo].

De mis ojos se eleva una columna de humo,  
que se convierte en nube;  
ahí, en el abismo del cielo azul,  
en esa eternidad del tamaño de un muerto,  
mi alma viaja a lomos de mi mirada,  
y siento en los párpados un peso azul glacial,

inmortal, como un cúmulo de nubes entregado  
a su sueño, a su irremediable devenir.  
Miro y comprendo:  
el cielo es un deseo sin fondo,  
un canto para el visionario,  
el eco perdido de un dios extinguido.

\*\*\*

Levanto la vista al cielo azul  
y deslumbrado aparto la mirada  
y la desplazo hacia cuanto me rodea, y...  
¡oh, maravilla, todo es azul!  
El coche de mi vecino, el empedrado, las  
fachadas de las casas, las hojas de los árboles,  
el perro que hurga en la basura, la cara  
de la dependienta (¡pobre Evita!), los cruasanes, el café con leche,  
la hierba del jardín, el bigote del señor bibliotecario,  
los pezones de Maria, el falo de Juan José M<sup>a</sup>...  
Todos los peatones, son azules, de un azul intenso,  
como si se hubiesen tragado un trozo de cielo.  
Y mis dedos, y el esperma, y el reflejo del espejo  
en el que peino mis ideas,  
y la voz del locutor de radio, y el polvo  
levantado por la descomunal excavadora (también azul),  
y el pájaro de mi vecina, y la jaula en la que yace preso,  
y mi vecina, y la casa en la que yace presa,  
y... Todo, todo es azul, de un azul intenso,  
como si el cielo se hubiera transmutado en nuestros  
cuerpos, vivos o muertos.

Noviembre de 2006